

SORALUZEN IBILBIDEAREN ALDAKETA LANAK DIRELA ETA

Euskotrenek, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen Sozietate Publikoak, bihar ostegunetik, urtarrilaren 10etik aurrera, DB06 Soraluze – Ondarroa Lurraldebus lineako autobusen ibilbidea aldatuko du, Soraluzeko Errebal kalean egingo diren lanak direla eta.

Lan horiek bukatu arte, 5 hilabeteko iraupenarekin, honako kaleetako geralekuak kendu egingo dira: Errebal eta Baltegieta. Horrez gain, burualdeko geralekua Estaziño Kalea izatera igaroko da Olea Erreka ordezkatuz.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: asteazkena, 2019ko urtarrilaren 9a

Euskadi, auzolana, bien común

